


# **HIRITARREN PERTZEPZIOARI BURUZKO INKESTA**



## AURKIBIDEA

### 1. SARRERA

### 2. ESKEMA METODOLOGIKOA

- 2.1. Galdetegiaren diseinu eta lanketa
- 2.2. Inkestatuaren profilaren definizioa
- 2.3. Benchmarkinga

### 3. DONOSTIAKO HIRITARREI EGINDAKO PERTZEPZIO INKESTA

- 3.1. Aurkezpena
- 3.2. Hiriko bizi-kalitatea: Hiritarraren balorazioa
- 3.3. Hiriko zerbitzuak: Hiritarraren diagnostia
- 3.4. Zerbitzu nagusien eta intereseko beste aspektuen eboluzioaren balorazioa
- 3.5. Donostia eta inguruko hiriak: Zerbitzuen eta intereseko beste zenbait aspektuen eboluzioari buruzko konparaketa
- 3.6. Estrategia eta proiektu estrategikoen balorazioa
  - 3.6.1 Tokiko proiektu estrategikoak
  - 3.6.2 Hiriaren eremutik gainerako proiektuak

### 4. DONOSTIAKO BIZI-KALITATEA ETA EUROPAKO HIRIEKIN ERLAZIOA

- 4.1 Donostiari buruzko balorazio orokorra Urban Auditeko hirien batezbestekoarekin erlazionatuta
- 4.2. Inkestaturiko hiritarren egoera pertsonala/familiarra
- 4.3. Hiria eta bizi-kalitateari buruzko balorazio orokorra
- 4.4. Hiriko zerbitzu eta ekipamenduekin asebetetzea
- 4.5. Donostia Europako rankinean. Bizi-kalitatea hiritarren pertzepzioaren arabera

### 5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOEN AUKERAKETA

### 6. ERANSKINA



## 1. SARRERA

Hiritarren pertzepzioari buruzko inkesta Donostiako Plan Estrategikoaren jarraipen lanen barruan kokatzen da eta *Urteko Garapen Txosteneko* elementu nabarmenetako bat da, hiritarrak bere hiriarekiko duen sentimendua eta aurrean dituen erronken aurrean zein ikuspuntu duen ezagutzeko, baita *Plan Estrategikoa* eta honek bultzaturiko proiektu eta jardueren aurrean zer pentsatzen duen ezagutzeko ere.

Inkesta honen helburu nagusiak jarraian jasotzen dira:


- Hiritarrek hiriaren eta honek eskaintzen dituen zerbitzu eta azpiegituren pertzepzio eta balorazioa
- Hiriko bizi-kalitatearekin erlazionaturiko aspektu nagusien balorazioa
- Hirien interes eta eragin berezia duten gai nagusien eboluzioaren inguruko balorazioa
- Beste hiriekin konparatuta, bizi-kalitatea eta honekin erlazionaturiko gai multzoaren balorazioa
- Hiriarentzat abian dauden edo aurreikusita dauden proiektu estrategikoen garrantziaren inguruko, nahiz garrantzi estrategiko nabarmena duten gaien inguruko balorazioa.

## 2. ESKEMA METODOLOGIKOA

Pertzepzio inkestaren helburuak ezarri ondoren, berez galdeketa denarekin hasten gara. Honen diseinua helburuek eta berez inkesta hauek dituzten ezaugarriek baldintzatzen dute.

Inkesta 2005eko azaroak 10 eta 15a bitartean egin da, Plan Estrategikoaren Bulegotik kanpoko enpresa batek telefonoz eginiko galdeketa baten bidez.

Donostian<sup>1</sup> bizi diren 800 pertsona ingururi egiten zaie; galdeketaren zabaltasuna dela eta, 2 bloketan banatzen da, ondorioz, 2 inkesta independente egin zaizkie 400 pertsoneri, inkestaturiko guztientzat galdera multzo komun batekin.



Euskararen normalizaziorako helburua dela medio eta elebitasuna bermatzeko, galderak gazteleraz, nahiz euskaraz egin dituzten inkestatzaileak izan dira, hiritarrak telefonoz erantzuteko erabili duen hizkuntzaren arabera.

## 2.1. Galdeketaren diseinu eta lantzea

Galderen aukeraketa, aurretik azalduriko helburuen arabera, bere erabilgarritasuna aztertuz egin da, hiriko bizi-kalitatea eta *Donostiako Plan Estrategikoaren* edukia kontuan hartuta, gehien nabarmendu daitezkeen markatzaileak azpimarratuz.

Galdeketa galdera jakin batzuetan *item* multzo baten ingurutik abiatuta egituratzen da, gai jakin batzuei buruz, hiritarraren iritzia ezagutu asmoz (asetze maila, garrantzia edo adostasun maila):

- Bere egoera partikularra hiriari dagokionez
- Hiriaren bizi-kalitatea eta honekin erlazionaturiko aspektu ezberdinak
- Hiriko zerbitzu eta azpiegiturak
- Hiriak azken aldian izandako garapena
- Ingurune gertueneko hiriekin konparatuz, Donostiak duen posizioa
- Abian edo aurreikusita dauden proiektu estrategikoak
- Epe laburrean hiriari buruzko itxaropena


2005eko uztaillean URBAN AUDITek<sup>1</sup> Hiritarren Pertzepzioari buruz eginiko inkestaren existentzia zela medio, galdeketaren diseinuan lan hartan barneratuta zeuden galderak kontuan hartu dira, Donostian lortutako emaitzekin eta *Urban Auditeko* hirienekin konparazio analisi bat egin ahal izateko.

## 2.2. Inkestaturikoaren profilaren definizioa

Inkestatuaren profila Donostiako populazioaren ezaugarri demografiakoetatik abiatuta ezartzen da. Horretarako, zenbait irizpide erabiltzen dira: adina, sexua, bizi den auzoa,

---

<sup>1</sup> Inkestaren unibertsoa adierazgarria da Donostiak duen biztanle kopuruarentzat eta proportzionalki antzekoa edo handiagoa da kontsultaturiko beste hiriek hiritarren pertzepzioaren inguruan egindako inkestekin alderatuz (ikus erreferentzia bibliografikoak)



ikasketa maila eta lan egoera. Ezaugarri demografikoen arabera, mostraren definizioa jarraian jasotzen da:

- Sexuen araberako banaketa (%50 gizonezkoak, %50 emakumezkoak)
- Adinen araberako banaketa (%):

18 eta 29 urte bitartean	%22
30 eta 44 urte bitartean	%32
45 eta 59 urte bitartean	%27
60 eta 74 urte bitartean	%20
- Auzoen araberako banaketa

Amara (Berria eta Zaharra)	%17,3
Mendebaldea: Añorga, Errotaburu, Zubieta, Ibaeta, Berio eta Ondarreta, Lorea, Bentaberri, Antiguoa, Igeldo, Aiete	%18,8
Erdigunea: Mirakontxa, Zentroa, Alde Zaharra	%13,8
Ekialdea: Gros, Egia, Intxaurrondo, Ulia	%24,0
Altza, Bidebieta	%15,5
Loiola, Zorroaga, Martutene	%10,6
- Lan egoeraren araberako banaketa

Ikasleak	%12
Langabetuak, diru-sarrerarik gabeko lana	%20
Lanean ari diren langileak	%48
Jubilatuak	%20


### 2.3. Benchmarkinga

Plan Estrategikoaren jarraipenaren lanerako ezartzen diren irizpideetan, Donostia eta eskualde, estatu, nahiz nazioarteko mailan, inguruko hiriekin konparaketa ezartzea ahalbidetuko duten erreferenteak ezartzeko beharrean egiten da indar berezia.

Hiritarren pertzepzioaren inguruko inkestan eta behar bezala aipatu legez, Urban Audit-aren pertzepzio inkestak erreferentziatzko testuinguru hori ematen digu, bere hiritarren balorazioaren arabera, hirian bizi-kalitatearekin zuzenean erlazionaturiko aspektu zehatz batzuetan, Donostiak Europa mailan duen posizioa aztertu ahal izateko (31 hiri).

---

<sup>1</sup> URBAN AUDIT (2005): *Urban Audit Perception Survey. Local Perceptions of Quality of Life in 31 European Cities*. Flash Eurobarometer 156 (01/2004) Benchmarking. Euro-barometroa (07/2005).



Horretarako, era uniformearen neurtzeko irizpide egokiak ezartzen dira, Donostiarentzat lortutako baloreak *Urban Audit*-eko hirien batezbestekoarekin eta orokorrean hiri guztiekin konparatuz.

### 3. DONOSTIAKO HIRITARREI ZUZENDUTAKO PERTZEPZIO INKESTA

#### 3.1. Aurkezpena

Tarte honek inkestaren emaitza esanguratsuenak jasotzen ditu.

Aipatu bezala, inkestaturiko pertsona kopuru osoa 800 izan zen, bi bloke edo azpi-galdeketatara banatuta, lanaren banaketa aldeaz aurretik azaldutako ezaugarri demografikoei jaramon eginik. Hauen artean, nabarmenenak:

- Emakume eta gizon kopuru berdintsua
- Inkestaturiko pertsonen %54k 45 urte baino gutxiago ditu eta %46 zaharragoa da
- %65k bigarren hezkuntzako edo unibertsitateko ikasketak egin ditu
- Gaur egungo definizioei helduta, %60k bere burua populazio aktibotzat jotzen du. Beste %40 jubilatuak, etxean lan egiten dutenak eta ikasleak dira.
- Aldi berean, inkesta hiriko zonalde ezberdinetan zabaldu da.


#### 3.2. Hiriko bizi-kalitatea: Herritarraren balorazioa

Orokorrean, Donostiako hiritarrak gustura sentitzen dira bizi den hiriak duen bizi-kalitateari dagokionez. Inkestaturiko pertsonen %95k hirian bizitzeagatik pertsonalki “asebete” zegoela esan zuen.

Analisia familiaren ikuspuntura eramanda, lau pertsonetatik hiruk (inkestaturiko %73,6) hirian duen bizi-kalitatearekin beti gustura dagoela adierazi dute (*1. Irudia*). Portzentaje hau 94,7ra arte heltzen da, “batzuetan asebete” sentitzen direla esaten dutenak barneratzen baditugu.

Bestalde, %5 ez dago ados hausnarketa honekin. Donostian, familiaren bizi-kalitateari dagokionez, “gutxitan” (%2,4) edo “inoiz ez” (%2,9) direla ase esaten dutenak ere badira.

### 1. Irudia. Hiriko bizi-kalitatea




Bestalde, era orokorrean, hiriarekin eta bere bizi-kalitatearekin erlazionatutako baieztapen batzuei buruzko iritzia neurtu da hiritarren artean.

Zati honek hiritarrek bere adostasun edo ez adostasun maila azaldu duten 24 aspektu orokor barneratzen ditu.

Hiritarrek era positiboan baloratzen dituzte eta oso ongi batekin, Donostiako bizi-kalitatearekin zerikusi duten aspektuak, 6tikgora dagoen batezbesteko balorazioa emanez. 2. Irudiak xehetasun handiagoz jasotzen du aspektu hauetako bakoitzean hiritarraren balorazioa.


Lehenik eta behin, zera adierazi behar da, “hiri honetan bizitzeko asebetetzea” azpimarratzeaz gain, Donostiak “turismoa erakartzeko duen gaitasuna” (9,1) eta “segurtasuna” (8,8) balorazio hoberen lortu duten aldagaiak direla.

Hiria “teknologia berrietan integratzea” eta “inguruko hiriekin harremana”, “gizarte-laguntza sarea”, “garraio publikoko zerbitzuak” edo “hiritarraren harretan, administrazio zerbitzu eraginkorrak” dira oso ongi lortzen dutenak; beste hainbeste esan daiteke “hiriaren garbiketa”, “kultur eskaintza” edo “Donostia aisialdirako hiri” bezala ikusteko pertzepzioa, edo “hirian bizi-kalitateak hobetzen jarraitzen duela” ikusteak.




Era positiboan baloratzen dira baita ere, batezbesteko balorazio indizearen azpitik dauden arren (6,3), Donostia “lan egiteko hiria” dela, “Euskararen normalizaziorako bidean” doala, “Foru Aldundiak hiriari eskaintzen dion laguntza” garrantzitsua dela, edota “Donostiarrek hirian era aktiboan parte hartzen dutela” baieztatzerakoan.

## 2. Irudia. Bizi-kalitateari buruz: Hiritarren balorazioa



“Ingurumenaren kutsadura” ez da Donostian arazo larritzat jotzen; “Donostia hiri egokia dela enpresak sortu eta garatzeko” ideiak bosta gainditzen du baita ere.



Beste muturrean, “trafikoa” eta “zarata” dira hiritarren okerren baloratzen dituzten aspektuak, “etxebizitzarako sarbidearekin” batera; Donostian bizi diren “atzeritarren integrazioa” (gainditzetik gertu dago, 4,9), “Eusko Jaurlaritzak hiriari eskaintzen dion laguntza” (3,6), edo “hirian lana aurkitzeko aukerak” (3,2) ere, ez dira ongi baloratzen.


Bestalde, zera azpimarra daiteke, hiritarren artean baieztapen ezberdinek sortu dituzten erantzun guztiz kontrakoak. Hiritarrek ia aho batez azpimarratu dute “Donostian bizitzeagatik asebetetzea”, “segurtasuna”, “turismoa erakartzeko gaitasuna” eta “hiria teknologia berrietan barneratzea”. Adostasun eza handien ekarri duten erantzunak “atzeritarren integrazioa”, “ingurumenaren kutsadura” edo “hiriak enpresak sortu eta garatzeko duen gaitasuna” bezalako gaietan eman da.

Kontsultatutako gaietan herritarrek zuten ezagutza edo inplikazio mailari dagokionez (1. Taulako Eranskinean lortutako “ez daki/ ez du erantzuten” erantzunen arabera), gauza bat nabari da, inkestatuen herenak (%34,3) ez diola “Foru Aldundiak hiriari eskaintzen dion laguntza” galderari erantzun.

Zentzu berean, inkestatuen ia laurdenak ez dio “gizarte-laguntza sarea” nolakoa den galderari erantzun (%24,8 ed/ede), ezta “hiriak inguruko hiriekin duen erlazioa” galderari ere (%23,3), edo “Eusko Jaurlaritzak hiriari eskaintzen dion laguntza” (%21,5) nola baloratzen duten. Beste muturrean, hiritarrek era zuzenagoan sentitzen dituzten gaiei dagokienez, “Donostian bizitzeagatik asebetetzea”, “segurtasuna” edota “turismoa erakartzeko gaitasuna” dira eta gehiengoaren erantzuna bermatzen dute, ed/ede erantzun gutxi jasoz (%1,5 eta 2,3 artean), “zarata” eta “trafikoa” hizpide direnean, antzeko jarrera jasoz (ed/ede %3ko erantzunekin).

### 3.3. Hiriko zerbitzuak: Hiritarraren iritzia


Donostiako zerbitzu, ekipamendu eta azpiegituren kalitateari buruzko balorazioa ere, positiboa da argi eta garbi. Zentzu honetan, egindako analisisian aztertu diren hiriko oinarritzko hamabi zerbitzuri buruzko balorazioaren indizea 5,6koa da (0tik10erainoko eskala batean); hau da, hiritarrak orokorrean nahiko gustura sentitzen dira hiriak eskaintzen duenaren kalitatearekin.




Zerbitzuen balorazioak ez du alde handirik nabarmentzen (3. Irudia); zentzu honetan, gehien estimatzen den zerbitzuak 10etik 6,7 lortzen du eta balorazio eskasena duenak 4,7, ondorioz, azterturiko zerbitzuek orokorrean galdeketa gainditu egiten dute hiritarren iritziz, aisialdi eskaintzaren salbuespenarekin (honek aipaturiko 4,7a lortzen du).

Kalifikazio hoberen duten zerbitzuak, oso ongi batekin, “ostalaritza eta sukaldaritza” (6,7), “liburutegiak eta kultur etxeak” (6,2), “merkataritza (kalitateari dagokionez)” (6,2) eta “osasun zerbitzu eta ospitaleen asistentzia” (5,9) dira, hauek guztiak batezbesteko balorazio indizearen gainetik.

### 3. Irudia. Hiriko zerbitzuak. Balorazioa



“Kultur ekipamenduen kalitateak (museoak, auditorioak...)”, “hiriko garraio publikoak” eta “hezkuntza-sareak” hiritarraren balorazio positiboa jasotzen dute baita ere, batezbesteko puntuaketatik gertu kokatuz (5,6), bestalde, gelditzen diren beste zerbitzu eta ekipamenduek (“ongizate eta gizarte-laguntza zerbitzuek”, “kirol ekipamenduek” “interneterako sarbideak” eta “hiriko berdeguneek”) hiritarraren onura lortzen dute, batezbesteko puntuaketaren azpitik dauden arren.



“Aisialdirako eskaintzak” bakarrik jasotzen du hiritarren nota txarra (zehazki inkestatuen %36,7k eskaintza hori nahiko edo oso eskasa dela adierazi du).


Hiritarren bertako zerbitzuei buruz duten iritzian sakonduz, kontsensu handiena “liburutegi eta kultur etxeen”, “merkataritzaren” eta batez ere “ostalaritza eta sukaldaritzaren” kalitatean lortzen da. Iritzi publikoak adostasun eza handien duen puntuak hauexek dira, “aisialdirako eskaintza” eta “hiriko berdeguneak kantitateari dagokionez”, izan ere, galdetuen herenak baino gehiagok bere kontrako iritzia agertzen baitu.

Lortutako erantzun mailari dagokionez (1.Eranskina 2. Taula), “ongizate eta gizarte-laguntza zerbitzuei”, “interneterako sarbideari” eta “hezkuntza sareari” erreferentzia egiten dieten balorazioek “ez daki/ez du erantzuten” (%39 eta 29 bitartean) erantzun gehien jaso dituztenak izan dira; hiritarrek gehiengoak aldiz, galdera “osasun eta ospitale laguntza” eta “hiriko berdeguneak” zenean erantzun egin du (%96,5 eta )7,5, urrenez urren; erantzun eskasagoa jaso dute “merkataritzak”, “ostalaritza eta sukaldaritzak”, “liburutegi eta kultur etxeek”, “kultur ekipamenduek” eta “garraio publikoak”.

#### 3.4. Zerbitzuen eta intereseko gaien garapen berriari buruzko balorazioa


Zerbitzu nagusietan eta intereseko beste elementuetan hiriak azkenaldi honetan izan duen garapenari buruzko analisiak zera adierazten du, aztertutako 19 aspektuetan, batez beste hiritarren %44,8ak hiriak eremu hauetan hobekuntzak izan dituela (4. Irudia) uste duela, inkestatuen %29,8ak ordea, okerrera egin duela uste du eta %25,5ak berdin mantendu dela.

Hiriak guztira jasotzen duen balorazio orokorrak 10etik 6 bat ematen dio aztertutako aspektu oro kontuan hartuta, “turistentzat erakargarria” (8,6) eta “teknologia berrien erabilera orokortua” (8,2) dira hiritarren gehiengoak hobekuntzak izan dituztela uste dutenak. badira aurrera egin eta nota ona atera duten beste hainbat, hala nola, “kultura eta aisialdirako eskaintzak” (7,9), “garraio publikoko zerbitzuak” (7,7), “ostalaritza” (7,5), “merkatal eskaintzaren kalitatea” (7,2), “hiriak ingurune metropolitanoan izan duen integrazioa” (7,2) eta “euskararen normalizazioa” (6,9).



“Zerbitzu publikoek”, “errepide bidezko konexioek”, “hiritarren partehartzeak” eta “enpresa berritzaileentzat erakargarritasunak” ere batezbestekoaren gaineko nota lortzen dute, nahiz eta eskasagoa den (6,6 eta 6). Bestalde, froga gaintzen duten gehiago ere badira, “hiriko ingurumenaren kalitatea”, “enpresa berrientzat erakargarritasun gaitasuna” eta “hiritarren segurtasuna” (azken urteetan izan duten garapena kontuan hartuz).


#### 4. Irudia. Azken 5 urteotako garapena



Inkestaren arabera, hobetu beharreko alorrak “etxebizitzara sarbidea”, “trafikoa”, “enplegura sarbidea” eta era xumeago batean “etorkinekiko tolerantzia” lirateke.

Hobekuntza indizeak<sup>1</sup> – hiriak azken garai hauetan izan duen garapenari buruz gerturapen alternatibo gisa- , orokorki balorazio positiboa dakar, aztertutako 19 alorren artean 15ek neurri batean hala bestean, hobekuntza izan dute galdetutako hiritarren arabera, “turistentzat duen erakargarritasuna”, “teknologia berrien erabilera”, “kultura eta aisialdirako eskaintza”, “garraio publikoa” eta “ostalaritzarekin” batera nabarmenduz.

<sup>1</sup> Baiezko (hobekuntza) eta ezezko (okerragotzea) erantzunen arteko saldo bezala kalkulatu.




Bestalde, aldaketa handirik gabe mantendu dira “enpresa berriak erakartzeko gaitasuna” eta “hiritarren segurtasuna”, hiritarren pertzepzioak “etorkinekiko tolerantziari” dagokionez, atzera pauso nabarmenak ikusi dituen bitartean.


“Enplegura sarbideak” “trafikoak” eta “etxebizitzara sarbideak” larriki egin dute okerrera inkestatuek esan dutenez. Lehen esan bezala, hiru faktore hauek asebetetzeari zegokionean, balorazio okerrenak zituzten alde zurretik.

### 3.5. Donostia eta inguruko hiriak: Zerbitzu eta intereseko beste aspekturen inguruko konparaketa analisia

5. Irudiak azaltzen duenaren arabera, gertuko beste hiriei dagokienez (Bilbo, Gasteiz, Iruña, Santander...) planteatutako hamaika aspektuetan 10etik 4,9an kokatzen da. Hau da, kontuan hartutako aspektu guztiak begiratuta, inkestatutako herritarrek Donostia gertuko hiriak baino beherago kokatzen dute.

#### 5. Irudia. Inguruko hiriekin konparaketa





Analisi zehatzago batek **“erakargarritasun turistikoa”, “ostalaritza eta sukaldaritza azpiegitura”, “bizi-kalitatea” eta “hiritarren hezkuntzari”** dagokienez, Donostiak posizio hobea duela nabarmen ageri du.

Batezbestekoaren inguruan (4,9), baina pixka bat beherago baloratzen dira **“pertsona kaltetuen integrazioa”, “merkataritza eskaintza” eta “kultur eta kirol ekipamendua”**.

Hala eta guztiz ere, Donostiak balorazio okerragoa jasotzen du inkestatutako hiritarren aldetik, **“enpresak erakartzeko eta sortzeko gaitasuna”, “trafikoa” eta batez ere “lan aukerak” eta “etxebizitzara sarbidea”** kontuan hartzen badira.


Bestalde, beste hiriekin alderatuz, **“hiriaren erakargarritasuna” eta “etxebizitzara sarbidea”** lortzeko zailtasuna ia aho batez hiritarren interes handien eragiten duten gaiak dira eta alde gutxira, Donostian **“lana aurkitzeko”** zailtasuna, **“bizi-kalitate”** handiagoa eta **“ostalaritza eta sukaldaritza azpiegitura”** hobea azpimarratzen dituzte. Donostiak duen egoerari dagokionez eta kontrako aldean, akordio maila txikien eragiten duten gaiak **“pertsona kaltetuen integrazioa”, “merkataritza azpiegitura”, “kultur ekipamenduen” eskaintza** edo **“populazioaren hezkuntza maila”** dira.

### 3.6. Estrategia eta proiektu estrategikoen balorazioa

Hiritarrek hiria bera, bere zerbitzuak eta bizi-kalitatearekin zerikusia duten aspektuetan duten iritzia ezagutzeaz gain, *Pertzepzio Inkestak Donostiako Plan Estrategikoa* osatzen duten estrategia orokorreari eta proiektu estrategikoei buruz zer sentitzen duten ere gerturatzeko digu.

Datozen bost urteotako herritarrei planteaturiko zazpi proposamen estrategikoen kalifikazio altu-altua jasotzen dute, 10etik 8a baino gehiago, bere garrantziaren batezbesteko balorazioa 8,4koa izanik (1. Taula).

Zehazki, **“pertsona adinduen laguntzan hiri aurreratua”** izateko estrategiak hiritarren gehiengoaren babesa lortzen du, 10etik 9 batekin, **“eskualdeko, estatu mailako, nahiz nazioarteko konexioen hobekuntzak”** jarraituta, ondoren **“enpresa berrien erakarpina eta sektore berritzaileen garapena”** eta **“Donostiak bere**



erakargarritasun turistikoa dela eta nazioarteko errekonozimendua” izanik; eta batezbestekoaren azpitik, baina balorazio benetan altua lortuta ere, “ingurune metropolitanoarekin harremanen hobekuntzara” zuzenduriko estrategiak daude eta “hiriak, bere bizi-kalitatea dela eta, nazioarteko errekonozimendua” lortzeko diseinatuak eta “etorkinekiko hiri solidario eta tolerantza”izateko bideratutakoak daude.

### 1. Taula Datozen bost urteotarako estrategia orokorren balorazioa


	Balioa
Donostiak, bere bizi-kalitatea dela eta, nazioarteko errekonozimendua izatea	8,2
Donostiak, bere arakargarritasun turistikoa dela eta, nazioarteko errekonozimendua izatea	8,4
Enpresa berrien eta sektore berritzaile eta teknologia berrien erakargarritasuna bultzatzea	8,4
Donostia etorkinekin hiri solidarioa eta tolerantza izan dadin lortzea	8,1
Donostiak bere inguru metropolitanoarekin duen harremana hobetzea	8,3
Maila guztietan eskualdeko, estatu mailako, nahiz nazioarteko konexioak hobetzea	8,6
Adinduen laguntzan Donostia hiri aurreratua izatea lortzea	9,0
Batezbesteko	8,4

Bestalde, proposamen estrategikoei, orokorrean, erantzun maila altua lortu dute (1. Eranskina, 3. Taula), gutxi gora-behera inkestaturikoen %95 eta 99 inguru alde batera edo bestera, bere garrantziaz jabetu baita, Donostia “adinduen laguntzarako hiri” izatera bideraturiko estrategia erantzun-maila altuen lortu duena izanik (%0,75k besterik ez du “ez daki” edo “ez du erantzuten” adierazten). “Enpresa berriak erakartzeko gaitasuna eta sektore berritzaileen eta teknologia berrien garapena” bultzatzeko estrategiak ed/ede erantzun-maila altuena jasotzen duena da (%5,25).

#### 3.6.1. Tokiko proiektu estrategikokoak


Bere osotasunean proiektu estrategikoei (6. Irudia) emandako garrantzia altua da (10etik 7,5, batezbesteko balorazio indize gisa) eta inkestaturikoei eman dioten garrantziaren arabera, “osasunaren alorreko ikerketen garapena”, etxebizitza publikoaren garapenean aurrerapauso handia dakarren “Etxebizitzaren Aurrez-aurreko Plana” eta “garraio eta komunikabideetan azpiegituren hobekuntza” aurki ditzakegu lehenik eta behin.

Oso ongi batekin, garrantziaren ordena jarraituz ekipamendu publikoak eta berdeguneei buruzko proiektuak kokatzen dira, hala nola, “nazioarteko kultur ikuskizunen eskaintza”, “Topoa hobetzeko eskusartzeak”, “hirian parke eta berdegune gehiagoren sorrera”, “erriberen errekupeziarako eskusartzeak”,




“Victoria Eugenia Antzokiaren birgaitze eta erreforma”, edota “San Telmo museoaren birgaitzea”. Hauekin batera, aurreraturiko enpresen promoziora zuzendutako proiektuak daude, hauen artean “enpresei aplikaturiko ikerketa zentroyen sorrera” eta “enpresa berrientzat parkeen sorrera” (hauen balorazioa 8,4 eta 7,5 artean kokatzen da).

## 6. Irudia. Tokiko proiektu estrategikoak



Balorazio ona dute baita ere, batezbestekoaren azpitik kokatzen diren arren, “aisialdi eta kirolerako azpiegituren sorrerak” (zehatzago esanda, kirolari aplikaturiko ikerketa zentro baten sorrerak), “gastronomian hezkuntza aurreraturako zentro bat egiteak”, “Nazioarteko Arte Garaikidearen Zentroa-Tabacalerak”, “Kursaalaren antzeko azpiegitura berriek”, edo “Kirol Portu baten eraikuntzak”; inkestaturiko hiritarrek “Tranbiaren” beharra nolabait zalantzan jartzen duten proiektu bakarra da (4,7ko puntuazioa ematen diote).

Inkestaturikoek ematen dituzten erantzun zeharo ezberdinetan begiak jarriko bagenu (erantzunak garrantzitsua zer den eta zer ez kontuan hartuta taldetan jarrita), badira kontsensu handien eragiten duten proiektuak, hauen artean “osasunaren arloan ikerketaren garapena” eta “Topoa hobetzeko eskusartzeak”, “garraio eta komunikazioen azpiegituren hobekuntza” eta “Etxebizitzaren aurrez-aurreko plana” azpimarra daitezke. “Tranbiak” edo “Kirol Portuak” izan dezaketen



garrantzia baloratzerakoan, Donostiako hiritarrek erantzun ezberdinuagoak azaltzen dituzte eta argi adierazten da beraientzat garrantzi gutxien duten proiektuak direla.

Azkenik, eta ez da horregatik *Plan Estrategikoaren* jarraipenerako garrantzi gutxiagokoa, analisiak hiritarrek planteaturiko proiektuen ezagutza maila edota inplikazioa neurtzen du eta hau nahikoa dela esan daiteke lehenik eta behin. Ondorioz, orokorki proiektuen balorazioek zein ehunenekotan jasotzen duten “ed/ede” erantzuna jakitea komeni da (1. *Eranskina*, 4. *Taula*); proiektuen osotasunerako batezbestekotik abiatuta, inkestatuen 20tikia batek “**ez daki/ez du erantzuten**” (%5,2a). Hau esan ondoren, ezin dugu alde batera utzi “**Tabacalera-Nazioarteko Kultur Garaikidearen proiektuaren**” inguruko iritzi falta (erantzunen %12,8 ed/ede da, zortzi inkestatutik ia bat); ed/ede portzentajeetan “**enpresei aplikaturiko ikerketa zentroen sorrera**” bigarren dago (%9 ed/ede), “**Abiadura Handiko Trena**” egiteko proiektua (%7,5), “**Tranbia**” (%7,3), “**Kirol Portu baten sorrera**” (%6,3), “**erriberak errekuperatzeko eskusartzeak**” (%6) eta “**kirolari aplikatutako ikerketa zentro baten sorrera**” hurrengoak izanik (ed/ede aukera honetan ere %6koa izanik).

Beste muturrean “**garraio azpiegituren hobekuntza**” edo “**nazioarteko kultur ikuskizun eskaintza**” daude eta ia inkestatu guztien erantzuna lortu ere bai (ed/ede %0,5ak eta %1ak erantzun du, urrenez urren).


### 3.6.2. Udal eremutik gainerako proiektuak

Udal eremutik gainerako proiektuei dagokienez (7. *Irudia*), balorazioan oso ongi bat jasotzen dute orokorrean planteaturiko zortzi galderek, 10etik 7,5eko puntuaketarekin.

Emandako garrantzia dela eta, “**Pasaiaiko badiaren birgaitzea**” (8,2) eta gertu dituen “**Donostialdeko tokiko agintarien arteko kolaborazioa**” eta “**garraiorako txartel bakar baten sorrera**” kokatzen dira.

“**Aireportua handitzea**” “**Donostialdeko udalen artean foro moduko organismo baten sorrera**”, “**Baiona-Donostia Euro-hiriaren proiektua**” eta “**Abiadura Handiko Trenaren proiektua**” puntuaketa ona lortzen duten beste proiektuak dira, azken biak batezbestekoaren balorazioaren azpitik kokatzen diren arren; eta azkenik, “**Portuaren eraikuntza-birgaitzea**” beherago kokatzen da, bere garrantzia era positiboan baloratzen den arren (6,4).


## 7. Irudia. Udal eremutik gainerako proiektuak



Aurkeztu diren udal eremutik gainerako proiektuek era orokorrean kontsentsu maila altua agertzen dute, hauen artean aipagarrienak **“Donostialdeko agintarien artean hirigintza, ingurumen eta beste zenbait gaietan kolaborazioa”**, **“garraio metropolitanoarentzat txartel bakarraren sorrera”** eta **“foro moduan, udal guztiek parte hartuko luketen organismoa”**. Beren garrantziari dagokienez, desadostasun handien sortzen dutenak **“Portuaren eraikuntza-birgaitzea”** eta **“Abiadura Handiko Trena”** dira. Urrunetik jarraitzen dituzte **“Aireportua handitzeak”** edo **“Baiona-Donostia Euro-hiriaren sorrerak”**.

Udal eremutik gainerako proiektuen inguruko erantzunek (1. *Eranskina*, 5. *Taula*), tokiko proiektuen ingurukoek baino ezagutza maila baxuagoa dute nabarmen: ed/ede erantzunen portzentajea %14,8an kokatzen da udal eremutik gainerako proiektuei dagokienez, hau da, galdeturiko 7tikbatek hala erantzuten du, tokiko proiektuek aldiz, “ed/ede” erantzuna kasuen %5ean jasotzen dute.

**“Baiona\_Donostia Euro-hiriaren proiektua”** da ed/ede erantzun gehien jasotzen duena (%27), ondorioz, gaiari buruzko ezjakintasun handiagoa dagoela adierazte duela pentsatzera darama honek, nabarmen atzerago **“tokiko agintarien arteko kolaborazioa”** kokatuz (%20). **“Udal metropolitanoen partehartze foroaren sorrera”**, **“Portuaren eraikuntza-birgaitzea”** eta **“Pasaiaiko badiaren birgaitzea”** ed/ede erantzunen %13 eta 15 artean kokatzen dira; bestalde, **“Abiadura Handiko Trena”**, **“garraio metropolitanoarentzat txartel bakarra”** eta **“Aireportua**



handitzea” izan dira hiritarren inplikazio gehien jaso duten proiektuak (ed/ede erantzunen portzentajea % 6 eta 8,3 artean kokatzen da).


#### 4. DONOSTIAKO BIZI-KALITATEA ETA EUROPAKO HIRIEKIN KONPARAKETA

Atal honek Donostiako hiritarrek bertan dagoen bizi-kalitatearen inguruan egiten duten balorazioa jasotzen du, Europako 31 hiritan *Urban Audit*-ek egindako Pertzepzio Inkestaren<sup>1</sup> bidez hiri bakoitzean dagoen bizi-kalitatearen pertzepzioarekin alderatuz. 2. *Taulak* Urban Auditen parte hartu duten hirien zerrenda jasotzen du, biztanle kopuruarekin batera. Atal honetan zehar egindako analisisian Europako hirientzat batezbesteko baloreak jasotzen dira, hoberen eta okerren kokatuta dauden hirien aipamena ere egiten da, Madril Bartzelona eta Parisen indar berezia eginez.

*Urban Audit* inkestaren datuak eta donostiarrek duten pertzepzioari buruzko inkestan lortutako emaitzak abiapuntu izanik (galdetutako *item* bakoitzarekin hiri bakoitzean asebetetze maila edo adostasun neurria azaltzen duen populazio portzentajea), tarte bakoitzari (*guztiz asebeste, nahiko asebeste...*) balio bat egokitzen zaio, kasu bakoitzean hiri bakoitzak lortzen duen puntuaketa ezartzeko, *Urban Audit* batezbestekoa aurkitzeaz gain

---


<sup>1</sup> Hiri bakoitzeko 300 inkesta egiten dira, erakusketan demografia ordezkari irizpideak ezarriz.



## 2. Taula. Urban Audit inkestan parte hartzen duten Europako hiriak

		Biztanle kopurua (2001)
Belgika	Antwerpwen (Amberes) Brussel (Bruselas) Liège (Lieja)	445.576 973.565 184.604
Danimarka	Kobenhavn (Copenague)	449.148
Alemania	Berlin (Berlín) Dortmund Leipzig München (Múnich)	3.388.434 589.240 493.052 1.227.958
Grezia	Athinai (Atenas) Irakleio (Heraklion)	789.166 142.112
Espainia	Barcelona Madrid Málaga	1.505.325 2.957.058 534.207
Frantzia	Marseille (Marsella) Paris (Paris) Rennes	981.769 2.125.246 364.652
Irlanda	Dublin (Dublín)	495.781
Italia	Napoli (Nápoles) Roma Torino (Turín)	1.004.500 2.546.804 865.263
Luxenburgo	Luxembourg (Luxemburgo)	76.688
Herbehereak	Amsterdam Rotterdam	734.594 595.255
Austria	Wien (Viena)	1.550.123
Portugal	Braga Lisboa	164.192 564.657
Finlandia	Helsinki	559.718
Suedia	Stockholm (Estocolmo)	750.348
Erresuma Batua	Glasgow London (Londres) Manchester	577.869 7.172.091 418.600


Iturria: *Urban Audit*, 2005. Berezko elaborazioa



#### 4.1. Donostiari buruzko balorazioa, Urban Audit hirien batezbestekoarekin konparatuta


8. irudiak Donostiako hiritarrek baloratutako aspektu multzoaren emaitzak<sup>1</sup> jasotzen ditu, Europako batezbestekoekin batera. Azaletik ikus daitekeenez, Donostiarrek beren hiria egoera nahiko onean jartzen dute Europako batezbestekoarekin konparatuta.

#### 8. Irudia. Donostia eta Urban Audit-eko hirien batezbestekoa



Hiriak duen bizi-kalitatearekin edo duen irudiarekin erlazionatutako aspektuek lortzen dituzte posiziorik onenak, hauen artean Donostian “**bizitzearen asebetetzea**” eta “**hirian dagoen segurtasun sentimendua**” izanik. Datu hauek nabarmentzeko modukoak dira, nahiz konparatutako aldagaien osotasunari dagokionez duen

<sup>1</sup> Erantsitako irudiek eta 2. Eranskinak azaltzen dutenez, inkestaturiko *item* bakoitzean hiri batek lor dezakeen puntuaketakik altuena 10.000 da eta baxuena 0, testua idazterakoan baloreak sinplifikatu diren arren, ondorioz, baloreak 0 eta 10 artekoak dira



posizioagatik, nahiz Europako hiriek lortutako balorazioaren aurrean lortutako diferentziagatik (10etik 9,5 Donostian bizitzeko asebetetzea dela eta, Europak duen 7,9ko batezbestekoaren aurrean eta 9, *Urban Audit*en 6aren aurrean, “segurtasun sentimenduari” dagokionez).

“Hiriaren garbitasuna” (10etik 7,9rekin, Urban Auditek lortutako 4ko notaren aurrean) eta “hiritarraren harretan administrazio zerbitzuen eraginkortasuna” (7,1 Donostiak, Urban Audit-ek duen 5,6<sub>aren</sub> aurrean) Europako batezbestekoarekin konparatuz posizio bikainean daude, “airearen kutsaduraren”<sup>1</sup> balorazioarekin gertatzen den legez.

Beste muturrean, Donostiak desabantaila dauka Europako batezbestekoarekin konparatuz, “etxetik internetera sarbideari” (hemen hiritarren desabantailarik handiena ezartzen diote Donostiari, 6,2ko notarekin, Urban Audit-ek duen 7,4ko batezbestekoarekin alderatuta) eta “kultur ekipamenduei (antzokiak, museoak,...)” dagokienez<sup>2</sup>. Era berean, Donostiak antzeko egoera edo okerragoa du hainbat aspektutan, hala nola, “berdeguneetan (kantitateari dagokionez)”, “Internetera ziberkafe, KZgune, liburutegi eta halako ekipamenduen bidez sarbidean” eta “zarata” hiriak duen arazo larri gisa ikusterakoan.


Beste aspektuei dagokienez, Europako batezbestekoa eta Donostiak lortutako puntuaketaren arteko diferentzia eskasa da eta Donostiaren aldekoa orokorrean.

Interesgarria da gai ezberdinen erantzunek inkestatutako hiritarrengan izan duten erantzuna aztertzea, honek gai bakoitzari buruz duten ezagutza maila adierazten baitu, baita gai bakoitzak hiritarrengan sortzen duen iritzia ere. Zentzu honetan, 9. Irudiak Donostian eta *Urban Audit* hirien batezbestekoan ez daki/ez du erantzuten (ed/ede) erantzunen portzentajearen arabera islatzen du maila hori.


Beraz, “internetera sarbidea” galderak eragiten du hiritarrengan ed/ede erantzunen kontzentrazio handia izatea, %25etik gorakoak, urrutitik “hezkuntza sareari” buruzko galderak jarraituta, hiriaren kalitateari buruzko erantzunek ed/ede erantzunen portzentajerik baxuenak lortuz.

<sup>1</sup> Kontuan hartu behar da “Airearen kutsadura arazo larria da” eta “Zarata arazo larria da” itemen puntuaketa positiboan islatu dela 8. Irudian, hau da, puntuaketa altuago batek ez du gai hori hirian arazoa denik azaltzen.

<sup>2</sup> Donostian kultur ekipamenduen puntuaketarako bi eremu hartu dira kontuan. Alde batetik, museo eta auditorium motako kultur ekipamenduen kalitatea eta liburutegi eta kultur etxeen kalitatea ere aztertu dira, Urban Audit-en galderak biak barneratzen baititu.




## 9. Irudia. Donostia eta Urban Audit hirien ED/EDE erantzunen batezbestekoa




Donostiakoarekin alderatuz, Urban Auditek aldeko abantaila gehien duen erantzun sorta, ed/ede erantzunei dagokienez, aipagarrienak “**internetera sarbidea**” eta “**5 urteren buruan hirian dauden itzaropenak**” dira, bestalde, Donostian eginiko inkestan ed/ede erantzuna altuagoa da “**atzeritarren integrazioa hirian**” eta “**administrazio zerbitzuen eraginkortasuna**” aztergai direnean, “**hezkuntza sarea**” alde batera utzi gabe.

### 4.2. Inkestatutako hiritarren egoera pertsonala edo familiarra

“Hilabete bukaerara iristeko zailtasunak” galderari erantzunak inkestatutakoen egoera pertsonala/familiarra erakusten du nolabait. 16.irudian ikusten den bezala, Donostia *Urban Audit*-en batez bestearen azpitik kokatzen da, Stockholm, Kobenhavn edo Luxembourg bezalako hirietatik nahiko hurruti, baina Napoli, roma edo Dublín hirien aurretik, eta alde gutxiagorekin baita Madrid, Malaga edo Bartzelonaren aurretik.




### 10.irudia. Hilabete amaierara iristeko zailtasunak




#### 4.3. Hiriaren eta bizi-kalitatearen balorazio orokorra

Aipatu dugun bezala, Donostia lehen posizioan dago hirian “bizitzearen asebetetze mailari” dagokionez, 11. Irudiak azaltzen duen bezala...(10etik 9,5, Europako batezbestekoa 7,9koa izanik), Stockholm bigarren da (9) eta ondoren Luxembourg (8,8), Wien (8,7), Helsinki (8,6) eta Bartzelona daude (8,3), balore minimoa Athinaien izanik (5,5). Madrid (7,6) eta Paris ere (7,5) atzerago daude.


### 11. Irudia. Asebate sentitzen zara zure hirian bizitzeagatik







Bestetik, donostiarrek “hirian dagoen segurtasun sentimendua” baloratzerakoan, lehen posizioa ematen diote (10etik 9,1), ondoren eta alde zabala tartean dela München dago (8,6) eta honen atzetik Wien (8,4), Helsinki (8,3) edo Kobenhavn (8). Europak duen batezbestekoa 6,3tikgertu kokatzen da, puntuaketa eskasena Lieje, Athinai, Lisboa, Napoli eta Marseillerena izanik (hauek guztiak 5 baino gutxiagorekin). Barcelona, Paris eta Madrid 7 eta 5,5 bitarteko puntuaketarekin azaltzen dira.

### 12. Irudia. Zure hirian seguru sentitzen zara



### 13. Irudia. Hiri garbia da






“Hiri garbia da” baieztapenak Donostia rankingaren 5. postuan kokatzen du (10etik 7,9ko puntuaketarekin), Luxembourg (8,9), München (8,7), Rennes (8,7) eta Wien (8,2) aurrean dituela eta Urban Audit batezbestekotik urrun (4,2). Paris, Barcelona eta Madrid hiriak Donostiaren atzetik agertzen dira nabarmen, Paris hirian 10etik 3,9rekin eta azkena 3 batekin.

“Segurtasun sentimendua” eta “garbitasunaren pertzepzioa” eskutik doazela dirudi, kontuan hartuta rankingaren goiko, nahiz beheko hiriek bietan antzeko posizioak dituztela,, konexio bat dagoela pentsa araziz.


Hiriarentzat “airearen kutsadura” zenbaterainoko arazoa den baloratzera, Donostia nahiko posizio txukunean ageri da (10etik 4,8ko puntuaketarekin, kontuan hartuta kasu honetan, gero eta puntuazio baxuagoa, orduan eta hobeto dela)<sup>1</sup>, beste batzuen atzetik dagoen arren, hala nola, München (4,7), Dortmund (4,5), Leipzig (4,2) eta Rennes (3,9), besteak beste eta *Urban Audit* batezbestekotik urrun (7).

#### 14. Irudia. Airearen kutsadura arazo handia da




(Aldiz, Donostian “zarataren arazoaren” balorazioak hiria posizio okerragoan uzten du (kasu honetan, gutxienez, posizio hobean); Donostiak 6,8 lortzen du 10etik, europar batez bestekoaren 6,6aren gainetik. Hoberen kokatutakoen artean, berriro, Stockoholm (3,7), Rennes (4), Dortmund (4,9), München eta Leipzig (5 bakoitzak),

<sup>1</sup> Zenbat eta %ekotan erantzun gutxiagok baieztatu airearen kutsadura arazo handia dela, orduan eta puntuazio altuagoa.




baina baita Glasgow (5). Kontrako aldean daude Athinai (9,6), Madril eta Bartzelonaren ondoren (9,2 eta 9 hurrenez hurren).


### 15. Irudia. Zarata arazo handia da.



### 16. Irudia. Atzerritarrek ondo integratuta daude.



Hiriaren bizi kalitatearekin harremana duten alderdietan sakonduz, gure arreta “**atzerritarren integrazioan**” jartzen da; kasu honetan, Donostiak tarteko posizioa du (4,9 10etik), *Urban Audit* (4,8) delakoaren antzekoa, Rennesen azpitik (7,2) edo, Stockhmen kontrako aldean. Paris donostiarren azpian dago, 4,7ko puntuazioarekin,




Bartzelona eta Madrileko hiritarrek, aldiz, beren hiriko atzerritarren integrazioari puntuazio okerragoa ematen diote (3,8 eta 2,8 hurrenez hurren).

Azkenik, hiria eta bere bizi-kalitatearen pertzepzioaren baitan, inkestatuaren itxaropenari egiten zaio erreferentzia: “**Hurrengo 5 urteetan ...-n bizitzea atseginagoa izango da**”. Kasu honetan, donostiar hiritarren baikortasuna (10etik 6,8ko puntuazioarekin, europar batez bestekoa baina pixka bat handiagoa da (6,3), baina Málaga eta Glasgow (8,2), Irakleio, Leipzig edo Braga (7,9) eta Bartzelona (7,3) bezalako hirietatik urruntzen da.

Aipatu behar da, ordea, aipatuta hiriaren bizi-kalitatearekin harremana duten beste gaietan, erlatiboki ondo kokatutako München, Wien edo Stockholm bezalako hiriek ere 10etik 5etik beherako puntuazioa jasotzen dutela.


#### 17. Irudia. Hurrengo 5 urteetan ...-n bizitzea atseginagoa izango da.




Atal hau kontutan hartutako alderdi guztietan Donostiaren posizio orokorraren balorazio positiboa eginez labur daiteke.

#### 4.4 Hiriko ekipamendu eta zerbitzuekin dagoen asebetetze indizea.

Atal honetan, hiriko ekipamendu eta zerbitzu publiko nagusien hornidura eta funtzionamenduaren inguruan hiritarrek duten asebetetze mailaren inguruko azterketak egiten da.




### 18. Irudia. Garraio publikoarekin asebetetzea



“Garraio publikoarekin” dagoen asebetetzeak ia oso ongia lortzen du (10etik 6,3), *Urban Audit* (6,1) delakoaren batezbestekoaren antzekoa, baina Rennes (8,4) Wien eta Helsinkiren (7,8), eta Dortmunden (7,6) atzetik, eta baita rankingaren beste aldeko hirietatik urrun, Roma, Lisboa, Napoli, Torino, edo Málagaetik (5etik behera) esaterako.

### 19. Irudia. Hezkuntza sareekin den asebetetze maila (ikastetxeak).




Antzeko puntuazio eta posizioa islatzen du donostiarren pertzepzioak “**hezkuntza sarearen (ikastetxeak)**” inguruan, Donostia desabantaila handiena duten Rennes, Helsinki eta Antwerpen (7,5 guztiek) eta Dublin eta Wienetik (7,1) banatzen dituen distantzia murriztuz.




Era berean, “**kirol ekipamenduek**” balorazio ertaina (6,1) jasotzen dute galdetutako donostiarren artean, alderdi honetan hobekien baloratutakoen artean Helsinki (10etik 8), Wien (7,3) eta Rennes (7) errepikatuz, Luxembourg (7) edo Rotterdamekin (6,9) batera.


### 20. Irudia. Kirol ekipamenduekin asebetetzea



“**Gune berdeen**” balorazioan Donostiak desabantaila posizioa du (10etik 5,8, Urban Audit 6,1en aldean), Athenas eta Irakleio dira posizio okerrera lortzen duten hiriak (3,3 eta 2,8ko puntuazioa); puntuazio altuenak München (8), Stockholm (7,8), Rennes (7,6), Kobenhavn(7,5) eta Luxembourgek (7,4) lortzen dute.


### 21. Irudia. Gune berdeen asebetetzea.






Donostian baloratutako kultur ekipamenduek (europar batasuneko 7,3ko batezbestekoaren azpitik, 10etik 6,3ko puntuazioarekin) hiria Bartzelona (6,62) bezalako hirien gainetik jartzen dute, baina Wien (8,9), Kobenhaven (8,5), Helsinki eta Amsterdam (8,3) edo Müncheneren (8,2) azpitik.


## 22. Irudia. Kultur ekipamenduekin asebetetzea



“Hiritarren arretarako administrazio zerbitzuen eraginkortasunak” Donostia toki onean uzten du (7,1), konkretuki hirien rankingean hirugarren tokian, Luxembourg (8,3) eta Manchesterren (7,3) ondoren, Rennes (7) atzetik duela, eta europar batezbestekoaren oso gainetik (5,6); zentzu honetan Berlinek (3,3) azken tokia du.


## 23. Irudia. Administrazio zerbitzu eraginkorrak.






“Ospitale eta osasun laguntzaren” inguruko balorazioak (10etik 6,7) Urban Auditen batezbestekoaren aldean (6,4), hiria tarteko posizio batean kokatzen du berriro.


#### 24. Irudia. Ospitale eta Osasun laguntzarekin asebetetzea.



Azkenik, “ziberkafe, Kzgune, liburutegi eta abarretatik Interneterako sarbidea” delakoak europar batezbestekoa baino baxuxeagoa jasotzen du (10etik 6,1 besteen 6,5en aldean), hirien rankingaren beheko erdialdean erdiko posizioa lortuz, hala ere, Roma (6), Madid (5,9) edo Nápoles (5,2) bezalako herriak baino hobeto. Zentzu honetan hobekien baloratutakoak Dublin (7,5), Londra (7,5), Glasgow (7,2), Kobenhavn (7,2) eta Helsinki (7,1) dira.


#### 25. Irudia. Interneterako sarbide publikoak (ziberkafe, KZguneak, liburutegiak...)





Bestalde, eta hiritarren aldetik antzeko balorazioa (6,2) jasotzen duen arren “**etxetik Interneterako sarbideak**” posizio okerragoa hartzen du, rankingeko laugarren postua atzetik hasita, Málaga (6,1), Bartzelona (6) eta Madriden (5,5) atzetik. Aldedi honetan balorazio hobereana lortzen duten hiriek (Helsinki, Wien) 10etik 8,5eko puntuazioa gainditzen dute.

## 26. Irudia. Interneterako etxeko sarbidea




### 4.5. Donostia europar rankingean. Bizi-kalitatea hiritarren ikuspuntutik.

Aztertutako gai desberdinentzako puntuazioen batezbestekotik ateratako balorea hiri bakoitzari jartzen zaion ranking orokor bat eginda (20 irudia), Donostia 8. tokian kokatzen da, 10etik 6,62ko puntuazioarekin, eta Rennes da (7,28) puntuazio hobereana lortzen duen hiria (ondoren Helsinki eta Luxembourg).


Ranking honetan, Donostia hobekien kokatutakoaren (Rennes) eta *Urban Audit* delakoaren hiriko batezbesteko puntuazioaren arteko distantziakidetasunean kokatzen da; 18. postuan dagoen Parisekiko 1 eta 2 puntuko abantailarekin (10etik egindako puntuazioan) , baita 22. dagoen Barcelona (1,06) eta 30. den Madrdekiko.

Bukatzeko, beharrezkoa da esatea, zerbitzu, ekipamendu eta azpiegituren kalitatearen balorazioa positiboa den arren (asebetetze indizeak ia alderdi guztietan gainditzen du 10etik 5a), dokumentu honetako 3. atalean adierazi den bezala, *Urban Audit* inkestako balorazioekin alderatuz, honengandik desberdina den ikuspegia agertzen duela. 4.4 atalean landutako 17 alderdietatik, Donostia, hirien rankingean (32 hiri) erditik behera



6tan bakarrik agertzen da (“hezkuntza sarea”, “gune berdeak”, “ospitale eta osasun laguntza”, “kultur ekipamenduak”, “Interneterako sarbide publikoak” eta “Interneterako etxeko sarbideak”).

## 27. Irudia. Hiriaren bizi-kalitatearen Balorazio Orokorra. Hirien rankinga.



Hala ere, azpimarratu behar da “Interneterako etxeko sarbideak” kasua bakarrik dagoela azken 5 posizioetan. Gainera, hiritarrek Donostia batezbestekotik behera 6 kasuetako 4tan bakarrik kokatzen dute (“gune berdeak”, “kultur ekipamenduak”, eta bi “Interneterako sarbide” motetan).

Beraz, azken hausnarketa gisa esan daiteke Donostia bere hiritarren bizi-kalitatearen hautemateari dagokionez, europar hiriekin (*Urban Audit*) alderatuta, hautemate ona duela, hobetu daitekeen arren.